



28. Zenbakia
2009ko maiatza

Ezkabarte

Udal
Informazio
Aldizkaria

Ibarrak kutxazain bat izanen du Arreko Irungo Etorbidean

Udalak legealdi honetarako duen helburuetako bat bete egingen da; izan ere, urte eta erdiz kutxazain automatikoko zerbitzuaren bila aritu ondoren, azkenean Rural Kutxa izan da zerbitzu hori jartzeko obra-lizentzia eskatu duen entitatea eta, aurreikuspenen arabera, litekeena da bulego bat ere irekitzea. Auzokideek behin eta berriz eskatutako zerbitzua izan da, gainera.

Hain zuzen ere, duela gutxi egindako Osoko bilkura batean, Rural Kutxak obra-lizentzia eskuratzeko egin duen eskariaren berri eman zen; zehazki, Arreko Irungo Etorbidean kutxazain bat jartzeko eskaria izan da. Arrek, horrela, banku-kutxazain bat izanen du, eta auzokideek era horretako hainbat eragiketa egiteko aukera izanen dute eguneko 24 orduetan.

Web berria Ibarra Internet bidez zabaltzeko

■ Honatx euskaraz eta gaztelaniaz nabigatzeko aukera: www.ezcabarte.es

Joan den martxoaren 19tik, Ezkabartek badu bere web gunea; horrek esan nahi du Internet bidez eskura dagoela Udalar buruzko informazio osoa eta bariatua. Webean sartuz gero, Udalak "zintzilikatutako" informazio guztia jakiteko aukera izanen dugu eta, era berean, posta elektronikoko helbide bat aurkituko dugu (ayuntamiento@ezcabarte.es) auzokide guztiek iritziak eta iradokizunak bidal ditzaten, hala nahi izanez gero. Hona hemen web gunearen helbidea: www.ezcabarte.es

Behin Webean sartuta, bisitariak denetarik argibideak aurkituko ditu gure Ibarrari buruz: kokapen geografikoa, ekonomia, demografia eta gizartea. Gure inguruko turismoak eta ohiturek ere beren tokia dute sarean. Bestalde, egunegun Ezkabarten sortzen diren albisterik interesgarriak ikusteko parada ere badugu, egunero gertatzen denaren berri jakiteko. Era berean, "012" telefono-zerbitzuaren inguruko argibidea ematen da; informaziorako eta hitzorduek hartzeko telefonoa da, zehazki. Halaber, Informaziorako Udal Aldizkaria dago ikusgai (argitara eman diren ale guztiak), bai eta argazki sorta zabala ere.

Bestelako kontuak ere ageri dira; esate baterako, Udalaren organigrama, aurrekontuak, udal ordenantzak eta araudiak, era guztieta geroak egiteko inprimakiak, bai eta esteka interesgarri batzuk ere.

Web gunea ANIMSAren lankidetzaz abiarazi da, hau da, Nafarroako Udal Informatikaren Elkartearen laguntzaz, eta aipatzekoa da Roberto Martínez zinegotziak buru-belarri egin duen lana; teknologia berrien inguruko udal gaietarako arduraduna baita.



Zabalik dago dagoeneko Interneten sartzeko zentro publikoa, boluntarioek harrera eginda

Izan ere, joan den maiatzaren 5ean abiarazi zen Interneten Sartzeko Zentro Publikoa; zerbitzuak ordutegi berezia du auzokide bat bere borondatez areto hori kontrolatzeaz arduratuko delako; esan beharra dago, bestalde, zentroa Ezkabarteko jende guztiarentzat irekita dagoela.

Ordutegia, zehazki, hauxe da: astearte, ostegun eta ostiralean, arratsaldeko 6etatik 8etara. Hori neguko ordutegia da, irailaren 16tik ekainaren 14ra. Udako ordutegiari dagokionez, ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15ean bukatuko da, eta egun beretan izanen da, baina goizeko 11etatik 13etara. Zentroa itxita egonen da abuztuaren 1etik 15era bitarte. Urte osoan zerbitzua doakoa izanen da.

Udalak boluntarioen bila jarraitzen du zerbitzuaz arduratzeko; interesatuak jo dezatela Zentrora berera edo Udaltxera, izena emateko.

Zentroaren egoitza Arreko kontzejuek etxean dago eta hiru ordegailu ditu; haietako bi Nafarroako Gobernuak diruz lagundutakoak. Arreko kontzejuek, bere aldetik, instalazioa eta altzari gastuak ordaindu ditu. Zerbitzuaren ordutegia maiatzaren 5ean jarri zen abian, eta orain arte, boluntario baten eskuetan egon da, huraxe baitzen aretoa irekitzeko edo itxeko ardura zuena.

Udalak boluntarioak eskatu ditu ondareari buruzko liburu baterako

Udalak boluntarioak eskatu ditu Ezkabarte osatzen duten herri eta dermio bakoitzeko arkitektura-ondareari buruzko ikerketan eta ikerketari loturiko kontuetan laguntzeko: zubiak, garbitokiak, elizak, baselizak, etxeak...

Helburu nagusia da informazio hori guztia jaso eta liburu bat egitea, interesatua dagoen jende guztiak eskura izan dezan. Beraz, argazki zaharrak, agiriak, kontakizunak eta lan honetarako interesgarriak izan daitezkeen euskarri guztiak utz daitezke; azken finean, auzokide guztiengazko dokumentazio lan jakingarria baita.


Irache elkarteak doako aholkularitza ematen du hil bakoitzeko hirugarren ostegunean

Zerbitzu horrek hainbat gai jorratzen ditu: etxebizitza: eraikuntza-arazoak, etxebizitza berria edo bigarren eskukoa erosteko urratsak, gastuak, alokairuak...; aseguruak: etxe, ibilgailu, heriotza, bizitza... aseguruen inguruko argibidea eta aholkularitza...; bankuak eta kutsak: hipoteka-maileguak, nobazioak, subrogazioak, komisioak, kreditu-txartelak...; telefonoa: baja hartzea, alta hartzea, Internet...; zerbitzu teknikoak: matxurak, konponketak...; konponketa-tailerrak: bermeak, konponketak...; dendak: bidaiak, tindategiak, elikadura, arropa...; Administrazioa: isunak, errekurtsioak...; auzokideen arteko bitartekaritza, mugak, eragozpenak edo beste afera batzuk direla eta; bai eta kontsumoari lotutako beste edozein kontu ere.


Miloi eta erdiko aurrekontua 2009. urterako

Udalak, aurtengoan, 1.518.500 euroko aurrekontua du behar guztiei aurre egiteko; udalbatzak joan den apirilean onetsitako aurrekontua da. Gastuei dagokienez, kontusailik handiena langileei dagokie eta ondotik inbertsio errealak datoz. Diru-sarrereri dagokienez, kontusailik handiena zuzeneko zergen bitartez biltzen den kopuruari dagokio.

Diru-sarrerak guztira 1.518.500



Gastuak guztira 1.518.500



"012" telefonoa, alkatearekin, arkitektoarekin edo Iracherekin hitzordua eskatzeko zerbitzua

Joan den otsailaz gerotik, "012" telefono zerbitzua erabili behar da Ezkabarteko alkatearekin, udal arkitektoarekin edo Irache kontsumitzaileen elkartearekin hitzordua eskatzeko. Hitzordua eskatzeko zerbitzu horrek, era berean, kultur jarduerak ordaintzeko aukera ematen du, betiere ematen diren jarraibideekin bat. "012" zerbitzua goizez eta arratsaldean erabili daiteke. Hona hemen ordutegia: asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 19:00etara, eta larunbatetan, 9:30etik 13:30era. Uda garaian, berriz, 8:00etatik 15:00etara. Herritarrek 0,34 euro ordaintzen ditu dei bakoitzeko, deiak zenbat irauten duen alde batera utzita. Halaber, badago "012" zerbitzua Nafarroatik kanpo erabiltzeko aukera, 948 21 70 12 telefonora deituta.

24 Kioto Etxebizitza Ezkabarten

Joan den martxoaren 27an, informazioa emateko bilera bat egin zen Arreko kontzejuei-aretoan, Udalak deituta; bileraren bidez auzokide interesatuei jakinarazi nahi izan zitzairen nola parte hartu energia aurrezteko Kioto Etxebizitzak deritzen programan.

Proiektu horren bitartez, etxeko energia-kontsumoen kontrol errazak egiten dira eta, behin energia aurrezteko kontseiluak aplikatu ondoren, kontsumoak jaisten dira. Horrela, "Kioto Etxebizitzak" ekimenak hiru tailer dinamiko eskaintzen ditu programaren nondik norakoak xehetasunez azaltzeko, bai eta energia aurrezteko aholkuak ikasteko ere. Horrez gain, energia aurrezteko kit bat ere eskaintzen da eta, horrekin batera, etxean energia aurreztu eta eraginortasunez erabiltzeko eskuliburu bat ere bai.

Martxoaren 27ko aurkezpenaren ondotik, 24 familiak eman dute izena. Apirilaren 29an lehenbiziko tailerra egin zen. Partehartzaileek gida praktikoa bana jaso zuten, energiaren kontsumoak murrizteko, eta txorrotentzako iragazki-joko bat, ur-kontsumoa murrizteko. Hurrengo tailerra maiatzaren 26an egingen da.

77.750 euroko dirulaguntza hamabost erakunderentzat

Beste behin ere, Udalak dirulaguntzak banatu ditu Ezkabarteko hainbat elkarte eta talderen artean; guztira, hamabost erakunde izan dira eta, osotara, 77.750 euro jaso dituzte.

Dirutza handienetik txikienerako hurrenkeran, Burlata-Atarrabiako Musika Eskolak 36.680 euro jaso ditu; ondoren, kontzejuetako festetara bideratutako diru kopurua dator: 17.500 euro; 5.804 euro, C.D. Avance Ezkabarte kirol elkartearentzat; 4.800 euro, San Roman Gizarte Etxearentzat, eta 3.750 euro, Arreko San Roman Erretiratuen Elkartearentzat.

Hona hemen dirulaguntzak jaso dituzten gainetako erakundeak: Lankidetzarako Funtsa (1.870 euro), Arre/Makirriango kontzejuetako Olenzterroak (1.600 euro), Atarrabiako San Andres Erretiratuen Elkarte (1.330 euro), Ezkabarte Abesbatza (1.286 euro), Nafarroa Oinez/Korrika (1.115 euro), C.D. Avance elkartearen futbol-eskola (700 euro), Ibaialde BHI/Idoskia Guraso Elkarte (400 euro), Ezkabarteko Areto-futboleko kluba (400 euro), Arreko Trinitatea kofradia (264 euro) eta Hermanitas de los Pobres (250 euro).

Arreko Irungo etorbidea moldatu eta hobetzeko lanak hasi dira

Maiatz honetan abiatu dira Arreko Irungo etorbidean dauden esparru publikoak moldatu eta hobetzeko lanak. Lanek, beraz, herriko erdiguneko tokirik jendetsuenetako bat aldatuko dute eta, aurreikuspenen arabera, gehienez sei hilabete iraunen dute.

Hobetuko diren esparruak Irungo etorbidearen ekialdeko espaloari dagozkie; Arreko hiri-mugaren barnean daude, Iruñetik eta Atarrabiatik sartzeko errotondatik 15. poligonoko 169. lurzatira bitarte.

Lanek nabarmen hobetuko dute egungo zoladura; izan ere, desnibelez beteta dago, espaloiak estuak dira, eta sestra-aldaketak, nabarmenak. Inguru osoan, oztopo fisikoen gaineko legea aplikatuko da eta euri-uren zorrotzenak bideratuko dira.

Zoladurari dagokionez, helburu nagusia da oinezkoen ibilbideak bultzatzea eta, era berean, espaloia iren tamaina eta hartan ibiltzeko baldintzak hobetzea. Ibiltarientzako esparru jarraitua eratu, esparru publikoak ugaritu eta zabor-edukiontzien eremuak multzoan txertatu dira; horrez gain, kaleko argien sare berria ere jarri eta fatxadetan dauden argiak kenduko dira, etorbidearen ezaugarriekin bat.

Egungo euri-uren sarea ere osatuko da galtzadetakoko hustubide berriak biltzeko eta, era berean, ura espaloira isurtzen duten eraikineta-



Irudian, Irungo Etorbidea hobetzeko lanek hartzen duten ingurua.

ko zorrotzenak biltzeko. Halaber, tantaz tantako ureztapen sarea aurreikusia dago lorategi berrietarako.

Lanen aurrekontua 278.757 euro da. Dirutza hori toki inbertsiorako estatuko funtsetik jasoko da, hau da, ekonomia eta enplegua eragiteko funtsetik. Ezkabarteko Udalak deitutako lehiaketa pu-

blikoaren arabera, lanak gauzatzeko epea sei hilabete ingurukoa zen; baina enpresa esleipendunak (Iruña Construcciones) lanak bost hilabetean egitea eskaini du.

Udalak, azkenik, pazientzia pixka bat eskatu die Irungo Etorbideko auzokideei, bai eta laguntza ere, lanek dirauten bitartean.

Mus eta briska sariak ospatzeko bazkaria

Arreko San Roman Erretiratuen Elkarteak bazkari bat egin zuen joan den otsailaren 20an, azken urte honetan antolatutako mus eta briska txapelketako sariak emateko. Bazkalondoren, irabazleek trofeoak eta txapelak jaso zituzten; guztira, hogeita hamarren bat lagun bildu ziren San Roman Gizarte Etxean eta, han egon zen Ezkabarteko alkatea, hau da, Carola Gutiérrez.

Aurtengo mus txapelketan Juan Indak eta Fernando Baltasrek osaturiko bikotea izan da irabazlea; bigarren tokian Gerardo Urriza eta Jesús Labiano gelditu dira, eta hirugarren, berriz, Pedro Tomás eta Fernando Guillén. Briska txapelketari dagokionean, partehartzaile guztiak emakumezkoak izan dira; beraz, aurtengoa ez da gizona aritu. Irabazleak Josefina Cadena eta María Jesús Mangado izan ziren. Bigarrenak Felisa Jáuregui eta Soledad Muñoz gelditu ziren eta, hirugarren tokian, berriz, Ana Medina eta Florita Escalada.

Bidaia eta txangoak hondartzara

Uda garaia eta beroa hurbiltzen ari diren honetan, Erretiratuen Elkarteak bidaien eta txangoen egutegia ixten ari da. Gogoratuko dugu Elkarteak 162 bazkide dituela eta, duela urte batetik hona, Julio Terren Arreko auzokidea dela elkarteburua. Bada, maiatzaren 13tik 22ra, 60 pentsiodun Benidormera joanen



dira oporretara; beraz, bi urte igaro ondoren, berriz ere hiri horretara itzuliko dira. Gainerakoan, uda partean Donostia, Zarautz eta Hondarribira joanen dira egunero, astegunetan egindako txangoen bidez. “Batez ere, Zarautza joanen gara”, esan digu elkarteburuak, “jendea bereziki hara joatea gustatzen zaionalako; bada non ibili, non paseatu, eta hondartzako terrazetan oso ongi jaten da”. Horrez gain, aurreikuspenen arabera, ekainaren erdian Bilbora ere joanen dira egun pasa, ziurrenera bazkaria Erandion egiteko.

Ezkabarteko festak: non eta noiz

EKAINA

ARRE: 5etik 8ra (ostiraletik astelehenera)

ZILDOTZ: 19tik 21era (ostiraletik igandera)

EZKABARTEKO EGUNA: 27 eta 28 (asteburua)

UZTAILA

ORKAIN: 25 eta 26 (asteburua)

ABUZTUA

AZOTZ: 7tik 9ra (ostiraletik igandera)

EUSA: 29 eta 30 (asteburua)

IRAILA

SORAUREN: 4tik 6ra (ostiraletik igandera)

ANOTZ: 20an (igandea)

ADERITZ: 25ean (ostirala)

ORRIO: 25etik 27ra (ostiraletik igandera)

URRIA

EZKABA: 12an (astelehena)

AZAROA

MAKIRRIAIN: 6tik 8ra (ostiraletik igandera)

ABENDUA

GARRUES: 8an (asteartea)

Garaje-aparkalekuak salgai Arren

Oraindik ez dira hartu Udalak Arren eskaintako aparkaleku guztiak. Hasieran, Udalak 16 toki jarri zituen salgai, eta batzuk saldu dira. Metro karatu bakoitzeko prezioa hau da: 655,80 euro. Eta tokiak salgai daude 8.000 eurotik aurrera gehi BEZA.

Udal langile berriak

Joan den apirilaren 1ean, Raquel Perez de Iriarte Mateo andrea Ezkabarteko Udaleko idazkari titularren karguaz jabetu zen, 3. Epaitegiko epailearen autoak hala aginduta. Era berean, apirilaren 1az geroztik, Udalak zerbitzu anitzetarako enplegatu bat ere badu, 2007.ean eginiko lehiaketaren ondorioz kontrataturik, igeltserotza lanetarako espezialista, Javier Alvarez jaunak 6 hilabeteko aldi baterako kontratua dauka.

Auzokideen eta enpresen eskura dagoen publikitate-espazioa

Udalak publikitate-espazio hau eskaintzen die auzokideei eta enpresei informazio-euskarri honen bidez. Helburua da edozein auzokidek bere enpresa, denda edo negozioa iragartzeko aukera izatea, Ibarreko udal aldizkaria erabilita. Publikitate-tarifak oso doituak daude zerbitzu eroso, segurua eta merkea eskaintzeko. Inork argibideak jaso nahi izanez gero, dei dezala 012 telefonora.

23 ahotseko abesbatza Ibarrerako, Josefina Orradrek eta Lino Otanok zuzendua

“Denoi kantatzea gustatzen zaigu; horrexegatik da giroa horren lasaia”



Irudietan, Ezkabarteko Abesbatzaren entsegu bati buruzko bi une ageri dira.

Ezkabarteko Abesbatza duela sei urte sortu zen. Lehenbiziko zuzendaria Javier Reta izan zen, Orikaingo apeza. Orain, Lino Otano da, apeza ere, Eibarko jaiotzez; laurogei urte ditu eta entsegu batzuk zuzentzen ditu. “Bizitasun handiko gizona da; solfeoan eta partiturretan laguntzen digu, abesbatzako kide gehien-gehienek musikan ez dakitelako, eta hark pazientzia handikoa izaten du gurekin. Zenbaitetan, entseguetan eta kontzertuetan zuzendari aritzen zaigu; oro har, Ezkabarteko Egunean eta Eguberrietan”. Josefina Orradrek esan digu hori guztia. Arreko auzokide horrek 41 urte ditu, eta urtean baina egiten diren beste entsegu eta kontzertu batzuk zuzentzeaz arduratzen da. Gaur egun, 23 lagun ari dira Ezkabarteko Abesbatzan; gehienak, emakumezkoak: 16, zehazki, eta gizonezkoak 7 dira, noski. “Ia kide guztiak Ezkabartekoak dira, baina kanpoko jendeari ere tokia egiten diogu; gizonezkoen ahotsak badira, bereziki. Ahots horren beharra baitugu. Zoragarria litzateke bost bat gizon gehiago izatea, tenoreen eta baritonoen kordak osatzeko”. Ezkabarteko Abesbatzaren emandak nagusiak Ezkabarteko Egunean eta Eguberrietan izaten dira. “Egun garrantzitsuenak dira, baina urtea oso luzea izaten da eta askoz ere kontzertu gehiago ematen ditugu. Denok izugarri gustukoa dugu abestea; horrexegatik da giroa horren lasaia”. Josefina Orradre Abesbatzako gazteena da. “Gehienok adin ertainekoak gara eta hortik gorakoak, hiruurogeita hamar eta koska...”



Entseguak astean behin edo bitan

Funtsean, errepertorio erlijiosoa lanitzen dute. “Eliz kantu asko prestatzen ditugu, baina herri kanta asko ere bai”. Errepertorioa bat dator beti Abesbatzaren estiloarekin. “Eguberrietan, gainera, Ibarreko herri bakoitzean abesten dugu; elizaz eliza joaten gara. Horrekin batera, ezkontza, bataio, lehen jaunartze eta halakoetan izaten ditugun emanaldiak aipatu behar dira... baita Ibarretik kanpo ere. Hemendik kanpoetan kobratu egiten dugu, eta bidaia egitea ere suertatzen zaigu”. Entseguak astean behin izaten dira; astelehen arratsaldeetan, 5etatik 8ak arte, Arreko kontzejtu etxearen ondoko etxabe batean. Kontzertu gehiago ematen ditugun garaian, astean bitan elkartzten gara entseatzeko. “Astelehenaz gain, batzuetan ostiraletan ere biltzen gara; batez ere, kontzertuetatik hurbil gaudenean; gehienetan, urte bukatzeren eta uda hurbiltzen denean. Garai horietan jardunik handiena izaten dugu; guretzat gozamen hutsa da, denoi kantatzea izugarri gustatzen zaigulako”.

José Antonio Zabalza alkate ohia zendu da

Joan den urtarrilaren 18an, José Antonio Zabalza Villava Ezkabarteko Udaleko alkate ohia hil zen, 69 urtetan. Biharamun arratsaldean, Ezkabartek azken agurra eman zion Makirriango San Martin elizan egindako hileta-elizkizunetan. José Antonio Zabalza bi legealditan izan zen Ezkabarteko alkatea: 1979tik 1983ra eta 1991tik 1995era. Horrez gain, Udalean ere hirutan izan zen zinegotzi: 1987tik 1991ra, eta bi legealditan elkarren jarraian: 1995etik 2003ra. Guztira, beraz, hogeitaz aritu zen Ibarren aldeko lanean, Udaletxean. Udal jardueraz gain, esan behar da lanbidez nekazaria zela, eta etengabe parte hartu zuela beti herri ekitaldietan: auzolanetan, esaterako. Txerri-hiltzean ere nabarmendu zen beti, eta ez zen haren parerik lan hura egiten; askotan, Ezkabarteko auzokide aunitzekin batera egindakoa. Beti zegoen jende guztiari laguntzeko prest; hizketarako goxoa, etorri handikoa, solasgai interesgarriak expainetan, beti xehetasunez eta bitxikeriaz beteta. Azken finean, ezagutu zuten guztien iritziz, auzokide bikaina izan zen eta jende guztiarentzako adiskide mina.



José Antonio Zabalzaren bi irudi. Eskuinekoan, txerri-hiltzeari dagozkion lanetan.

